



Ramos Hortaren arabera, inork ezin du gerra zibilaren arriskua aitzakiatzat erabili herri bati autodeterminazio eskubidea ukatzeko. Argazkian aktibista timortarra Bostonen eman zuen hitzaldian. JIM BOURGH REUTER

«Indarrez egonkortasunak denbora mugatuan iraun dezake soilik»

Horta Nobel sariduna Timorrez eta autodeterminazioaz mintzatu da New Yorken

Jose Ramos Hortak, Belo gotzainarekin batera, Bakearen Nobel saria eskuratu zuen 1996an, Ekialdeko Timorren independentziaren alde egindako lanarengatik. Eguntan, Horta autodeterminazio eskubidearen eta Ekialdeko Timorren egoeraren berri ematen aritu da EEBBetan. EGUNKARIA Bakearen Nobel saridunak New Yorken emandako hitzaldian izan zen. Hona hemen hitzaldian Hortak esandakoa.

Berriemaile berezia

Koldo Almandoz / New York

EZ zen Ekialdeko Timorri buruz bakarrik aritu Ramos Horta. Autodeterminazio eskubideaz mintzatzean, besteak beste, Europako nazioak izan zituen gogoan: «Europako gutxiengoek eta nagusi ez diren etniek autodeterminaziorako eskubidea dute. Subiranotasun aldarrikapen horiek ez dira askotan diktadura baten menpe edota kolonizazioa jasan duten herrien modu berean egin behar, herrialde demokratikoetan badaudelako beste bide batzuk, baina autodeterminazio aldarrikapena beti da legezkoa».

New School of Social Resercheko auditoriora Timorren aldeko taldeetako partaideak, unibertsitate irakasle ugari eta indonesiar baten bat ere hurbildu ziren. Alain Nair kazetari estatubatuarrek eman zion hasiera hitzaldia. Estatu Batuek Indonesiako erregimenari emandako laguntza aipatu zuen Nairrek, eta laguntza horrek gaurdaino irauten duela salatu zuen. «EEBBetako Gobernuari eta Nazio Batuen Erakundeari ez zaie esku hartzeko eskatzen Ekialdeko Timorren, eskatzen zaien gauza bakarra da ez diezaiotela eman Indonesiako erregimenari laguntza politiko, ekonomiko eta militarrik».

Gutxiengoan errekonozimendua • Bakearen Nobel saridunak esaldi honekin

hasi zuen hitzaldia: «Belo gotzainari eta niri emandako Nobel sarian, mundu osoan dauden gutxiengoak errekonozitzen dira». Baina ironiarako lekua ere bazegoen: «Gezurra badirudi ere, 1996ko Nobel saridunen hautagaien artean Jimmy Carter EEBBetako lehendakari ohia zegoen, Indonesiako erregimenari laguntza eman zion gizona».

Jose Ramos Hortari bizarra zurriz hasia zaio; hala ere, betaurreko biribilek gazte itxura ematen diote. Hitz egitean zuzen begiratzen dio jendeari. Euskal Herriak Europaren barnean duen egoerari buruz galdetu zitzaionean, erantzuna argia izan zen: «Euskaldunek autodeterminaziorako eskubide osoa dute, Europako beste edozein gutxiengo eta etniak duen moduan;

hala ere, kasu bakoitzak baditu bere ezaugarriak, eta ezin dira herrialde azpigaratu baten egoera eta Europako herrialde baten egoera modu berean neurtu».

Ekialdeko Timor herrialde txikia izanik, askotan zalantzan jartzen da subiranotasuna lortuz gero zenbaterainoko etorkizuna izango zukeen. Hortarentzat tamaina ez da arazoa, «akaso zalantzan jartzen al da Singapur, Luxenburgoko eta Liechtenstein herrien existentzia».

Aitzakiarik ez autodeterminazio eskubideak ukatzeko • Entzule indonesiar ugari zegoen aretoan, eta gehienetan ez ziren Ramos Hortaren pentsamoldearekin bat etortzen. Entzule horientzat, Indonesiaren bakea eta garapena arriskuan jartzen ditu Ekialdeko

Timorren autodeterminaziorako mugimenduak. Hortaren iritziz, «inork ezin dio esan herrialde bati guda zibilaren arriskua dagoelako ez duela autodeterminazio eskubiderik. Gutxiengo guztiek dute eskubide hori». Baina gutxiengo horren gehiengoa zalantzan dagoen? Herrialde horren aldarrikapenak iritzi desberdinak biltzen dituenen? «Orduan, zalantzazko kasu batean, jendeak zer sentitzen duen jakiteko, Nazio Batuen begiradapean erreferenduna egin dezakegu».

1975eko abenduaren 7an Indonesiak Ekialdeko Timor inbaditu zuen. Ondorengo urteetan, Jakartako erregimenak 200.000 pertsona hil zituen, Ekialdeko Timorko herritarren herenak. Errepresio gogorra jasan du Timorrek azken 22 urteotan, baina Nobel saridunak dioenez, «subiranotasunagatik borrokatzen diren herrialdeetan, indarrez egonkortasunak denbora mugatu batean soilik iraun dezake».

Indonesiak portugaldarren kolonizazioari amaiera eman nahia erabili zuen aitzakia gisa Ekialdeko Timor hartzeko. Oso aitzakia ona Hortaren ustez, «zeren eta, Indonesia Timorren sartu zenean, Timor dagoeneko hiru hilabetez independentea zen».

Atzerri ministrorik gazteena • Ramos Horta nazioartean izandako atzerri ministrorik gazteena izan zen. 1975ean, 26 urte besterik ez zituela, Ekialdeko Timor independenteko Atzerri ministro bihurtu zen. Ez da harrizkoa, ordurako ezagunak baitzituen itsasoaren beste aldeko hainbat herrialde. Portugalgo Gobernuak lehenago Mozambikera erbesterratu baitzuen Horta. X

Datu batzuk

- ✘ **Hiru hilabetez independente:** 1975eko abuztutik abenduaren 7ra arte, Ekialdeko Timor independentea izan zen.
- ✘ **Inbasioa:** 1975eko urrian Indonesiak Ekialdeko Timor inbaditu zuen. Nazioarteko komunitateak ez zuen ezer egin, anexioa ez onartzeaz aparte.
- ✘ **Biktimak:** Suhartok 200.000 mila pertsona hil ditu Timorren, hiru herritarretik bat. Ramos Hortaren hiru anai-arreba Indonesiako Armadaren erasoetan hil dira.
- ✘ **EEBBen interesak:** EEBBek erlazio komertzial handiak dituzte Indonesiarekin (EEBBek armak saltzen dizkiote). Ramos Horta 1975eko abenduan iritsi zen lehenbiziko al-diz EEBBetara, Indonesiak eginiko okupazioa salatzen.

laburrean

A U S T R I A

■ Alargun Beltzari bizitza osorako kartzela zigorra ezarri diote

ELFRIEDE BLAUENSTEINER-I, herentzia jasotzeko gizon bat ustez pozoitu zuen 66 urteko emakumeari, bizitza osorako kartzela zigorra ezarri zion ostegunean epaitegi batek, haren diruaz jabetzeko «diru egarritz eta azpikeriaz» jokatu zuelako. Emakumeak depresioaren aurkako botikak eta diabetikoei odolean azukrea murriztekoak eman zizkion, hil zedin. X

P E R U

■ Gobernuari eta MRTAri elkarrizketarako deia egin die Japoniak

NESTOR Cerpa Cartolinik, Limako Japoniaren enbaxadaren 72 bahitu dituen MRTAko komandoko buruzagiak, esan du ez duela parte hartuko Gobernuarekiko elkarrizketetan. Japoniako Gobernuak deia egin die Peruko Gobernuari eta MRTAri elkar ulertzen saia daitezela elkarrizketa ez hausteko. «Batak bestearentzat sinesgarritasunik ez badu, neke egingo du aurrera prozesuak», adierazi du Gobernuak. X

M E X I K O

■ Subiranotasuna defendituko duela dio Zedillok

GOBERNUAREN eta EEBBetako Kongresuaren arteko ezadostasunak Mexikori kalte egiten badiote Gobernuak «eginahal guztiak egingo ditu mexikarren duintasuna eta subiranotasuna babesteko», Ernesto Zedillo lehendakariak esan duenez. Narkotikoen aurkako borrokan Mexikok baldintzak betetzen dituela erabaki zuen Bill Clintonek, baina EEBBetako Ordezkarien Ganbarako Atzerri Gaietarako Batzordeak ez du agiri hori onartu, eta horrek haserretu egin du Mexiko. X

ERRESUMA BATUA

■ Laboristek kontserbadoreei kentzen dieten aldea handitu egin da

ALDERDI Laboristak herritarren % 54ren sustengua du, hautesleen asmoei buruz *The Daily Telegraph* egunkariak egin duen azken galdeketa dioenez. Horren arabera, laboristek bost puntu egin dute gora joan den otsailaren hasieran egindako galdeketa emaitzekin alderatuta. Kontserbadoreek sei puntu egin dute behera eta % 28ren laguntza jaso dute. X